



9. MUTUALIA SARIAK

2022ko apirilak 29

Mutualia Sariak

Apirilaren 29an **Mutualia Sariak** banatu dira Bilboko Euskalduna Jauregian. Sarien **9. edizioa** izan da, laneko segurtasuna eta osasuna eta aniztasuna sustatzea aintzatesten dute, bi kategorietan:

- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko berrikuntzaren saria
- Enpresako aniztasunaren saria

Aurten, Mutualiak antolatu duen **“Segurtasunaren, osasunaren eta aniztasunaren topaketa”** ekitaldian eman dira sariak, apirilaren 28an Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta.

Jardunaldian parte hartu dute Lourdes Iscar Osalaneko zuzendari nagusiak, **Ana Camacho** Eusko Jaurlaritzako Industriaren eta Energia Trantsizioaren zuzendariak eta **Urtza Errazti** Mutualiako presidenteak.

Saritutako proiektuak

Berrikuntza Saria eta Aniztasun Saria

TRIENEKENS PAÍS VASCO, S.L.

Berrikuntza Saria

“Prebentzio-kudeaketaren integrazio eraginkorra” proiektuari.

Saria jaso zuen, Alberto Domínguez Corral, lan arriskuen prebentzioaren zuzendariak.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Aniztasun Saria

“Adimen-urritasuna duten pertsonak Bizkaiko Foru Aldundiaren antolamenduan sartzea eta barneratzea” proiektuari.

Saria jaso zuen César González de Heredia Maruri, araubide juridikoaren eta funtzio publikoaren zuzendari nagusiak.



Accesit

Aurkeztutako proiektuen kalitatea dela-eta, enpresa finalista guztiei accesit bana eman zitzaien. Berrikuntza Sariari accesita:



BAHÍA DE BIZKAIA GAS

“Segurtasun psikologikoa Bahia BBG-n”



METRO BILBAO

“Tren-ustiapen bateko kristal-silizearekiko esposizioaren kudeaketa”

Accesit

Aurkeztutako proiektuen kalitatea dela-eta, enpresa finalista guztiei accesit bana eman zitzaien. Aniztasun Sariari accesita:



EMTESPORT

“Aniztasuna, hazkunderako faktore”



GUREAK

“Lan-TEA. Inklusioa eta
espezializazioa”

9. Mutualia Sariak



Elkarrizketa

Alberto Domínguez, Trienekens País Vasco enpresako Laneko Arriskuen Prebentzioko zuzendaria

Zer da Trienekens, eta zertan aritzen da?

Trienekens jatorri alemaniarreko multinazional bat da, eta hondakinen kudeaketa integralaren arloan aitzindaria izateagatik da ezaguna.

Ibilbide luze honetan, birziklatzeko dozenaka lantegi kudeatu ditugu, eta gure aprobetxamendu-prozesu zorrotzak oinarri izan dira Alemaniako ingurumen-arloko legeria murriztailea garatzeko; halaber, Europako egungo araudia Alemaniakoan oinarritzen da.

Euskadin, Trienekens País Vasco gure filialaren bidez jarduten dugu. Enpresa eta jarduera talde bat gidatzen du filialak, eta enpresa horiek ingurumen-zerbitzuak eskaintzen dituzte eta Ekonomia Zirkularrarekin konprometituta daude; guztira, 100 pertsona baino gehiago enplegatzen ditu.

Hondakinak tratatzeko industria-lantegiak diseinatzen, garatzen eta kudeatzen ditugu, eta eskarmentu handia dugu etxeko ontziak sailkatzeko lantegietan..



Alberto Domínguez, Trienekens País Vasco enpresako Laneko Arriskuen Prebentzioko zuzendaria

Zein da laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikuspegia?

Trienekens enpresako Zuzendaritzak erabateko konpromisoa du bere langileen laneko ongizatearen aurrean, eta beharrezko inbertsio guztiak egiten ditu eta beharrezko baliabide guztiak jartzen ditu helburu hori lortzeko.

Bi lan-ildotan egiten dugu lan nagusiki: alde batetik, langile bakoitza nolabait teknikari bat izatea lortzea, lantegiaren barruan prebentzio-zeregina egiteko.

Langileen know howa baliatu nahi dugu, arrisku bat eragin dezaketen egoerak hautemateko eta horiei aurrea hartzeko, edo egunerokotasuna erraztuko dien neurri edo hobekuntza hori egiteko.

Bigarren ildoan enpresa egiten ari den digitalizazioa da, eta, horren barruan, oso tresna indartsua (APP bat) sortu dugu, beste erabilera batzuez gain, informazioa erraz jasotzeko balio diguna, langileek beraiek egindako behaketen bitartez



Alberto Domínguez, Trienekens País Vasco enpresako Laneko Arriskuen Prebentzioko zuzendaria



Zertan datza berrikuntzaren kategoriako Mutuaia 2022 Saria irabazi duen proiektua, “Prebentzio-kudeaketaren integrazio eraginkorra” izenekoa?

TRIENEKENS etxeak garatu duen aplikazioan oinarrituta dago proiektua; aplikazio horren bidez, hainbat alderdi kontrolatzen ditugu denbora errealean.

- Segurtasun-oharrak
- Langileen kudeaketa
- Entregatutako NBEen erregistroa
- Absentismoa eta ezbehar-tasaren indizeak

Etengabe garatzen ari den APP bat da, enpresaren beharretara egokitzen da eta kudeaketa-lana errazten du.

Alberto Domínguez, Trienekens País Vasco enpresako Laneko Arriskuen Prebentzioko zuzendaria

Zer hobekuntza lortu dira ezarri zenetik?

Lehenengoa eta garrantzitsuen langileen inplikazioa izan da; hasieran, gure zalantzak genituen APPak izango zuen harrerari buruz, baina erraz ohitu dira eta oharrak egiten dituzte...; oso erraza da erabiltzea.

Alderdi psikologikoa ere hor dago; izan ere, langileek balioetsi egiten dituztela sentitzen dute, enpresak haiek iradokitako neurri horiek hartzen dituenean; ekarpenak egiten jarraitzera bultzatzen ditu horrek, kudeaketa-sistema honen barnean inplizituki dagoen etengabeko hobekuntza bultzatuz.

Gaur egun, informazio asko iristen zaigu, eta, aplikazioari esker, ez dugu informazio hori galtzen; kontrolatuta, antolatuta, eskuragarri eta eguneratuta daukagu une oro.



Alberto Domínguez, Trienekens País Vasco enpresako Laneko Arriskuen Prebentzioko zuzendaria

Zer hobekuntza lortu dira ezarri zenetik?

Adibide gisa, Zuzendaritzak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko txosten bat eskatzen badit, klik bakarra eginez txosten grafiko bat egin dezaket, larritasunaren, egoeraren (irekiak/itxiak) eta horietan kontabilizatutako inbertsio ekonomikoaren arabera sailkatutako oharak/anomaliak jasotzen dituen. Bestalde, KPIak (absentismoa/ezbehar-tasa) ere aurkeztu ditzaket. Begiratu batean, grafikoak zentroen arabera antolatuta ikusiko ditu, une horretan duten egoerarekin.

Behin informazioa/datuak sartu ondoren, horiek baliozkoak dira edozein sailetarako; adibidez, Giza Baliabideen saila langile baten datuak hartzeko sar daiteke, hala nola antzinasuna, edo sail horrek absentzia bat sartzen duenean, niri APPak absentismo hori erakusten dit, eta datu hori kontuan hartzen du.

Sailen eta landa-langileen arteko informazio-sinergiak aprobetxatzen ditugu, eta horrek prebentzioaren kudeaketan denbora asko aurrezten laguntzen digu.



Alberto Domínguez, Trienekens País Vasco enpresako Laneko Arriskuen Prebentzioko zuzendaria



Beste enpresa batzuetan erabil daiteke?

Jakina, APP hau prebentzioaren eguneroko kudeaketan guztiok ditugun beharrei erantzuteko pentsatuta eta aurreikusita dago.

Elkarrizketa

César González de Heredia Maruri, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia



Zertan datza proiektua?

Proiektuaren funtsa inor atzean ez uztea da, pertsonak % 100 gai garela eta, batzuetan, desgaitasuna inguruak eragiten duela ulertzea. Horregatik eraldatu behar dira, pertsona guztiok geure trebetasunak garatu ahal izateko, eta, ildo horretan, proiektu honek desgaitasun intelektuala duten pertsonengan jartzen du arreta. Hala, karrerako funtzionario izatera iritsiko dira, lan egingo dute, eskubide eta betebeharrak izango dituzte, gainerakoek bezala, eta BFAk ematen dituen zerbitzu publikoak garatzen lagunduko dute.

César González de Heredia Maruri, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia

Nola sortu zen proiektua, eta noiz hasi zen ezartzen?

Proiektua 2017aren hasieran sortu zen, Bizkaia Egiten estrategiaren barruan, eta urte natural hartan geure burua trebatu eta erakundea erronka horretarako prestatu genuen. Ondorioz, lanpostuak eta jarduera-prozesu eta -prozedura guztiak berrikusi ziren funtzio publikoaren maila guztietan, baita zeharkakoagoak diren beste batzuetan ere. Kolektiboarentzako erreserbatu beharreko lanpostuak finkatu ondoren, erabakigarria izan da hirugarren sektorearekiko lankidetzak, horrek ahalbidetu baitzuen zuzentzen zitzaion kolektiboaren ezaugarrietarako benetan eraginkorra izango zen deialdi bat egitea. Deialdiak –datua azpimarratu beharra dago– ohiko deialdi baten betekizun guztiak izan zituen. Besterik gabe, teknikak, materialak eta prozedurak egokitu ziren, eta, jakina, edozein deialditan exijitzen diren lege-betekizun guztiak bete ziren. Deialdiaren beraren osteko prozesuak ere egokitu ziren, eta enplegu-hitzarmen bat sinatu zen, hirugarren sektoreko erakundeen laguntzarekin, plazak lortu zituztenei beren lan-bizitzan laguntzen dien lan-prestatzailearen figura bermatzeko.



César González de Heredia Maruri, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia

Zer emaitza izan da, ezarri zenetik?

Oso emaitza onak lortu dira; izan ere, mota horretako bigarren deialdian gaude. Mota horretako deialdi bat egin zuen Euskadiko lehen administrazioa izan ginen –langile finkoentzat, berriro diot–, eta orain halako deialdi bat errepikatuko duen lehena izango gara. Ez dut esango arazorik egon ez denik, proiektu guztietan bezala egon baitira, baina garrantzitsuena da horiek konpontzen asmatu dugula, jarduteko era berriak sortuz. Horrek aurreko zenbait modus operandi aldatzea eta, are, baliogabetzea dakar: etengabe geure burua trebatzea, langileak sentibilizatzea, komunikazioa indartzea, batez ere berritzea... Horrek aukera eman digu etorkizunari begiratzeko, eta, beste deialdi bat egiteaz gain, bestelako erronkak jartzeko geure buruari: lanpostu berriak sortzea, prestakuntza espezifikoaren beharra edo beharrik eza, barne-sustapena, etab.

Aplika daiteke beste erakunde batzuetan?

Bai, erabat. Lidergo-kontua da. Tresnak egon badaude; beraz, behin erabakia hartuz gero, ekiteak hainbat fase ditu, proiektu guztiek bezala, eta erakundeak heldutasun-maila ertaina izan behar du, baina hori bere burua berritzeko eta helburua lortzeko prest dagoen edozein egituratara estrapola daiteke. Jakinik, gainera, errentagarria dela, etekin ekonomikoari zein sozialari dagokionez.

9. MUTUALIA SARIAK

2022ko apirilak 29